**Tolosa** Bigarren eskuko merkatu txikia Etiopia laguntzeko 6

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO **hitza** info

**Osteguna, 2012ko irailaren 20a.** IX. urtea. 2.403. zenbakia. **tolosaldea.hitza.info**

# Tolosaldeko garraio publikoaren zerbitzua berrantolatuko dute

Aldundiak aurreproiektua argitara emango du hil honen bukaeran eta ekarpenak egin ahal izango dira; zerbitzuaren berrantolaketa egin duten erakundeek «herritarren beharretara» moldatu dutela diote 3




Tolosaldea Garatzeneko, aldundiko eta eskualdeko udalen ordezkariak, atzo, Tolosako udaletxean. I. GARCIA LANDA



Aranburu jauregian ikusi daitekeen argazkietako bat. HITZA

## Argien eta itzalen jolasa islatzen duten 40 argazki bildu dituzte Tolosan

Tolosa Gasaren eta Tolargiren datorren urteko egutegiko lehiaketarako aukeratutako lanak ikusi daitezke Aranburun, urriaren 6a arte 4-5

**Pako Aristi** Idazlea eta kazetaria

## «Hizkuntza bat hegemonikoa ez denean, jendeak ez du gogoko hori ikastea»

Aristik hitzaldia eskainiko du, gaur, Tolosan, ‘Euskara, hizkuntza bat bere bakardadean’ izenpean; 19:30ean hasiko da, kultur etxean 2

## Datozen bi larunbateetan egingo dituzte ehiza postuen enkanteak

27 ehiza postu daude aukeran Areson, eta guneen hasierako salneurria iazko bera izango da; ehiztariek 50 euro jarri beharko dituzte fidantza moduan 7







HITZA

## Pako Aristi ▸ Idazlea eta kazetaria

Euskararen inguruan mezu subliminalak zabaltzen direla dio Pako Aristik, eta hauek deuseztu arte, euskararen erabilerak ez duela gora egingo. Funtsean, euskara bakardadean dagoen hizkuntza da.

# «Euskara gure aisialdiko menuaren osagarri bat bihurtu da»

**Itzea Urkizu** Tolosa

Euskara norberaren bizitza intimoan integratzea, euskararen normalizaziorako gakoetako bat dela uste du Pako Aristik (Urrestilla, Azpeitia, 1963).

Hizkuntza sinboliko bilakatzeko bidean ikusten du euskara, eta ideia hauek zein beste hainbat izango ditu hizpide gaur, 19:30ean, Tolosako kultur etxean, Galtzaundik antolatutako *Euskara, hizkuntza bat bere bakardadean* hitzaldian.

**Euskara bakardadean dagoen hizkuntza dela abiapuntu hartuta, zertaz ariko zara hitzaldian?**
Hizkuntza baten arrakasta edo porrota, gizartean, beti dago estuki lotuta atzean daukan botereari. Botere hegemonikoak hizkuntza hegemoniko bat sortuko du, eta botere subsidiariok, ba, hizkuntza subsidiarioa. Hori da euskararen egoera. Horregatik dago bakardadean, euskararen herriak, Euskal Herriak, ez duelako botere propio bat izan azken 500 urteotan; Espainiaren mende egonik, espainolaren mendeko hizkuntza baztertua bilakatu da euskara.

**Euskara beti mendeko hizkuntza izango dela diozu. Esperantzarik ez?**
Kontua ez da itxaropena izatea edo ez izatea; hori gauza subjektiboa da. Hizkuntza politikaz ari naiz; hori objektiboa da, eta hor asma liteke zerbait kuriosoa egiten, edo ez. Gainera, daukazun boterearen ezaugarriei lotua dago. Euskara mendeko izango ez bada, inoren mendeko ez den botere egitura baten bultzadaz izango da, soilik.

**Laster kaletik ere desagertuko dela aipatu izan duzu.**
Kaletik desagertuko dela ez diot nik, datuek baizik, aurten argitaratu direnak. Datuok dira gure ispilu. Pentsatu behar dena zera da: egoera honetara zergatik iritsi garen, eta nola eralda dezakegun egoera. Nahiak eta desioak ez du ezertarako balio errealitatearen aurrean; estrategia bat edukitzeak balio du, eta estrategia hori aurrera eramateko baliabideek eta ahalmenak. Horien neurrira zabalduko da euskara gizartean.

**Euskararen alfabetizazioak gora egin du azken urteotan, eta gazte gehienek dakite euskaraz. Erabilerarekin, ordea, proportzioa ez da bera.**

**Zein izan daiteke hau aldatzeko gakoa?**
Euskararen inguruan zabaltzen diren mezu subliminalak deuseztea, batetik; hedabideetan, etengabe, euskarak ezertarako balio ez duela diotenak. Eta, bestetik, piramide sozialarekin jokatu behar da. Euskara piramidearen oinarrian mantentzen da, baina zenbat eta gorago begiratu, orduan eta errazago desagertzen da. Gazte batek, euskararik jakin gabe, medikua, enpresaria, aktorea, abokatua, esataria, pilotaria, Lehendakaria, orkestra sinfonikoko zuzendaria, Errealeko jokalaria, Bilboko alkatea… izan litekeela ikusten duen bitartean, ez dago zer eginik.

**Gazte askok euskaldun kontzientziarik ez dute beharbada?**
Baina espainolarekin ere ez dute kontzientziarik; erabiltzen dute, eta kito. Adibide bat: orain hainbat gazte Norvegiara joaten hasi dira, lan bila. Norvegian norvegiera hitz egiten da, baina baita laponiera eta finlandiera ere. Zein hizkuntza ikasiko dute gazteok? Norvegiera, nazioko hizkuntza. Alemaniara ere hasi dira joaten. Alemanian alemaniera hitz egiten da, baina baita daniera, frisiera eta romania ere. Zein hizkuntza ikasiko dute? Hegemonikoa, nagusiena. Euskal Herrian, Basque Culinari Center sortu du Eusko Jaurlaritzak, guztion diruarekin. Zein hizkuntza eskatzen diete ikasleei? Espainola eta ingelesa. Munduak horrela funtzionatzen du: hizkuntza bat hegemonikoa ez denean, jendeak ez du gogoko hori ikastea. Eta nork bihurtzen du hizkuntza hegemoniko? Estatuak berak, edo inork ez.

**Euskara normalizatzeko bidean, anti-politika ere nabarmendu duzu. Erakundeek eragile euskaltzalei babes gehiago eman beharko liokete?**
Ekimen guztiak beharrezkoak dira, baina gure erakundeak espainolak dira, Espainiaren sistema politikoan daude. Espainiak baliabide juridiko guztiak ditu guri bide hori oztopatzeko, eta erabili egiten ditu; askotan ikusi dugu hori. Abertzaleen aldetik ere, oso mezu kaskarra helarazten digute euskarari buruz: Xabier Arzalluzek espainolez argitaratu zituen bere memoriak; Carlos Garaikoetxeak ere, espainolez plazaratu zituen bereak; eta Arnaldo Otegik espainolez aterako ditu, laster, bere memoriak, eta euskarazko bertsioa azarorako iragarri dute. Honek guztiak zein mezu subliminal ematen digu herritarroi? Norberak atera dezala bere ondorioa.

**Euskarazko hedabideek hizkuntzaren zabalkundean aurrerapausorik eragin dutela uste duzu?**
Bai, noski. Irakurtzeko ohitura hedatu dute; erakutsi egin digute nola esan *prima de riesgo*, *carburantes*, *activos tóxicos*, *fuera de juego*, eta beste mila esapide. Hori lan garrantzitsua da. Izan ere, hizkuntza bat errepikatuz sartzen da garunean, eta bere lekua egiten du pentsamenduetan. Baina euskal hedabideak pobreak dira, dirurik gabe daude, eta hala egon dira beti; langileek, ahal dutenean, ospa egiten dute gehiago ordaintzen duten lekuetara, orain arte behintzat. Euskarazko hedabideak ez dira estrategikoak izan botere autonomikoaren guneetan: errepideak, suhiltzaileak eta kultur etxe faraonikoak, ordea, bai. Hemen, milaka pertsonek erosi dituzte auto erraldoiak, milaka euro ordaindu dituzte nora-

> «Hizkuntza bat hegemonikoa ez denean, jendeak ez du gogoko hori ikastea»

> «Euskal kultura periferikoa da, beti kapitalaren periferian mugitu izan delako»

nahiko 4x4 auto izugarriak erosten, baina euskal kulturarik ez dute erosi. Eta, gaur egun, euskara ardatz zuten enpresa, proiektu eta ekimen askok eta askok, porrot egin dute, desagertzeko zorian daude. Gu ere, sortzaileok, oso gaizki gaude. Baina Hondarribiko kirol portuan paseatzen dut, eta 300 ontzi daude; beste hainbeste Getarian, Donostian, Zumaian, Bermeon… Euskal kultura periferikoa da, beti kapitalaren periferian mugitu izan delako.

**Euskara hizkuntza siboliko bihurtuko dela diozu. Gizartearen zati handi bati, euskara altxor eta folklorearen zati moduan ikustetik, erabiltzeko tresna eta lehentasunezko hizkuntza ikustera pasatzea falta zaio?**
Bai, hori da. Euskara gure aisialdiko menuaren osagarri bat bihurtu da, batez ere, umeen inguruan antolatzen diren ekimenetan, edo ikastolen festa erraldoietan. Kontzientzia txarra du jende askok, eta horregatik, urtean bizpahiru aldiz euskarazko betekadak hartzen ditu, Durangon, Euskararen Egunean eta abar; baina gero, ez dute hori beren eguneroko bizitzan integratzen. Ekimen kolektiboetan hartzen dute parte, jende askorekin batera, baina etxean, bakardadean, ez dute liburu edo aldizkari bat euskaraz irakurtzen. Hori da hizkuntza baten bilakaera sinbolikoa: besteen aurrean itxura egiteko balio du, baina ez da integratzen norberaren bizitza intimoan.

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

# «Herritarren beharretara» moldatuko dute garraio publikoaren zerbitzua




Tolosaldea Garatzeneko Garbiñe Mendizabal, Unai Erroitzenea, Ibai Iriarte, Galder Azkue eta Jon Umerez, atzo egindako agerraldian. I.G.L.

Garraio zerbitzuaren aurreproiektua hil honen bukaeran argitaratuko du aldundiak

**Imanol Garcia Landa**

Tolosaldeko garraio publikoaren zerbitzua aldatu egingo da, «herritarren beharrei erantzuteko». Hala azaldu dute agerraldi batean Gipuzkoako Foru Aldundiko Garraio saileko zuzendari Unai Erroitzeneak, Tolosaldea Garatzeneko lehendakari Ibai Iriartek, Villabonako alkate Galder Azkuek eta Alkizako alkate Jon Umerezek. Aldundiak hil honen amaieran argitaratuko du aurreproiektua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, eta horrek martxan jarriko du prozesu guztia. Uztailean espero dute abian jarriko dela zerbitzuaren berrantolaketa.

Tolosaldeko garraio publikoaren berrantolaketari ekiterakoan, aldunditik garbi ikusi zuten sistema malgu bat izan behar zuela, Erroitzeneak azaldu duenez: «Sistema malgua, bai eskualdeko ezaugarrietara egokituko zena, eta baita herritarren beharretara ere egokituko zena. Horrek kostuak kontrolatzea ere ekarriko liguke». Bestalde, gogora ekarri du Tolosaldea kontzesio eremu bat dela, garraio publikoa eta eskolakoa uztartuko dituena, eta horrek «baliabideak ahal den gehien optimizatzea» ekarriko du.

Aldundia ohartu zen eskualdeko garraio publikoaren zerbitzua hobetu egin behar zela. Aurrera begira aurreikusten diren baliabideak autobusak, mikrobusak eta taxibusa direla azaldu du Erroitzeneak, «eskualdeko landa guneetako errepideetara egokitzeko eta baita herritarren eskaerara egokitzeko aukera emango digutenak ere».

Bestetik, hainbat ordutan mikrobusak eta taxiak eskaripekoa izatea aurreikusten da, hau da, zerbitzua ordu jakin batean izango da, baina erabiltzaileak espresuki eskatu beharko du. «Modu horretara, alferrikako zerbitzuak kentzea ekarriko du, eta aurrezte ekonomikoaz aparte, ingurugiroaren eragina eta kutsadura murriztea ekarriko du. Baina ez hori bakarrik, honek guztiak ahalbidetuko du zerbitzua jendearen eskaeraren arabera egokitzea eta ahal den zerbitzu egokiena osatzea».

## Herritarren ekarpenak

Aldundiak garraio publikoaren aldeko apustua egiten duela esan du Erroitzeneak. «Argi dugu hori dela etorkizunaren alde apustu egitea. Garraio publiko on batek bizi kalitatean eragina du, eta hau hobetzeko ezinbestekoa da», zehaztu du.

Aurreproiektuan zehaztu diren zerbitzuak eta hauen ordutegiak abiapuntu gisa hartuko dira herritarren ekarpenak jasotzeko. Behin aurreproiektua publikatuta dagoenean, bi hilabete jarriko dituzte ekarpenak egiteko eta beste bi horiek aztertzeko. Gero zerbitzuaren esleipenaren prozesua etorriko da, eta beraz, uztailean espero dute martxan izatea berrantolatutako zerbitzua. Agerraldian izan dira guztiek herritarrei parte hartzeko eskatu diete.

Bere aldetik, Ibai Iriartek azaldu du aurreproiektua osatzea ez dela erraza izan, koordinazio lan handia eskatu duelako. «Argi dugu eredu iraunkorretara joan behar dugula, eta ahalik eta zerbitzu malguena eskaini behar dugula, herritarren beharrei egokitzeko», esan du Iriartek. Helburua bailarako herrien arteko sarea indartzea dela gaineratu du. «Zerbitzu egokia eskaintzen goazen heinean, ingurumenari lagunduko diogu eta auto gutxiago ikusteko aukera izango dugu gure kaleetan eta hori oso garrantzitsua da», zehaztu du. Bestalde, garraio publikoaren zerbitzu berria azaltzeko informazioa udaletxeetan izango dela esan du Iriartek: «Prozesu ba jarriko da martxan informazioa eman eta herritarren ekarpenak jasotzeko». Herri txikietan eta taxi zerbitzua izango duten herrietan bilerak sustatuko direla nabarmendu du, «herritarrek zuzenean informazioa izateko».

## Herri txikiei begira

Alkiza izango da taxi zerbitzua jasoko duten herrietako bat. Bertako alkateak, Jon Umerezek, landa eremuko herrientzat egungo garraio zerbitzua «eskasa» dela esan du. «Edozein esfortzu egiteak merezi du zerbitzua hobetze aldera, eta horregatik eskertzekoa da aldunditik eta herrietatik egiten ari garen lana, eta herritarrek egin beharko duguna», gaineratu du Umerezek. Berrantolaketarekin «ea behingoz lortzen dugun gurpil zoro honetatik ateratzea, hau da, alde batetik ikustea zerbitzua eskasa dela eta bestetik autobusak hutsik ikusten direla. Beraz, zerbitzu eskasa da eta jende gutxik erabiltzen du, eta, ondorioz, ez da hobetzen», zehaztu du Umerezek. «Hori nolabait apurtu egin behar dugu, eta horretan apustu honek du balioa, maiztasuna handitzen baitu», gaineratu du.

Azkenik, Europako Mugikortasun Iraunkorraren Astea dela gogora ekarri du Galder Azkuek. «Garraio publikoaz gain, udalok bizikletaren erabilera sustatzeko erabateko asmoa dugu eskualdean. Horretarako, aurten, Tolosaldea Garatzenen eta Foru Aldundiaren laguntzarekin Tolosaldeko bizikleta plana egin da», zehaztu du Azkuek. «Eskualdeko bidegorrien azterketa egiteaz gain, bizikletaren sustapenerako neurri batzuk hartu dira. Plana berria da, baina gure aldetik konpromisoa hartu dugu bizikleta garraiobide gisa sustatzen jarraitzeko». Plana bihar aurkeztuko dute, Tolosako kultur etxean, 11:00etan. Bestalde, Tolosaldeko Mugikortasun Astean antolatu diren ekitaldietan parte hartzeko deia egin du Azkuek.

# Tolosako hiribusa doan eta txokolatea txirrindularientzat, bihar

Herritarrak «modu jasangarriago batean mugitzeko» gonbitea egin du udalak egitasmoaren bitartez

**I. Garcia Landa** Tolosa

Tolosako Udalak bat egiten du Europako Mugikortasun Astearekin eta eskualde mailan antolatu diren ekimenetan jendea parte hartzera gonbidatu du. «Herritarrei modu jasangarriago batean mugitzeko gonbitea egin nahi diegu, oinez, bizikletaz zein garraio publikoan ibiltzera animatuz», azaldu dute udaletik.

Helburu horretan laguntzeko, bihar Tolosako hiribusa doan izango da eta Trianguloa plazan jarriko duten postu batean txokolate beroa banatuko diete bizikletan mugitzen ari direnei, 11:30etik aurrera. Bide batez, Trianguloan bertan Tolosaldeko bizikleta planari buruzko erakusketa bat jarriko dela eta jendeak mugikortasunari buruz dituen iritziak eta iradokizunak idazteko gune bat ere egongo dela jakinarazi du udalak.

Azkenik, herritarrei igandean egingo den Tolosaldeko VI. Irristailu-Bizikleta Martxan parte hartzeko deia egin du udalak. Ikaztegietatik datozenekin elkartuko dira, 11:00etan, Trianguloan, eta ondoren Anoetara joango dira.

## ↓ Mugikortasun Astearen egitaraua

### IRAILAK 20, GAUR

▪ **10:30 eta 17:30.** Bizikletan modu seguruan ibiltzen ikasteko ikastaroa, Tolosako Trianguloan. Energiaren Euskal Erakundearekin batera, bizikleta garraiobide moduan erabiltzeko beldurrak gutxitzeko eta zirkulaziorako praktika onak sustatzeko ikastaro praktikoa. Bi orduko iraupena izango du eta doan da.

### IRAILAK 22, LARUNBATA

▪ **10:30-13:30.** Bigarren eskuko azoka, Villabonan, Berdura plazan. Bizikletak, trizikloak, patinak, patineteak, kaskoak, maillotak, umeen kotxeak,... eraman daitezke salgai jartzeko. Informazio gehiago: 689 749 439 zenbakian eta udaletxeetan.

### IRAILAK 23, IGANDEA

▪ **10:30.** VI. Tolosaldeko Irristailu-Bizikleta Martxari irteera emango zaio Ikaztegietan eta Asteasun.

▪ **11:30.** Anoetan hamaiketako ekologikoa, opari zozketak eta ipuin-kontalaria.

Oharra: Euria egiten badu martxa bertan behera geratuko da.

Tolosako hamaika etxetako hormak apainduko dituzte 2013an, datorren urriaren 6ra bitarte, Aranburu jauregian ikusgai izango diren argiz eta itzalez egindako argazkietako batzuk.

# Argi-itzalen neurriak

Itzea Urkizu

Bata ez litzateke sortuko bestea egongo ez balitz; hori da argi eta itzalen patua. Eta horixe argazkien bidez kontatzea proposatu zuten, Tolosa Gasa eta Tolargik antolatutako 2013ko egutegiaren argazki lehiaketako arduradunek.

*Argiak eta itzalak* izenburupean, beraz, guztira 664 argazki jaso dituzte aurten, datorren urteko egutegia atontzeko; 51 argazkilari parte hartzaile izan dira.

Datozen egunotan, urriaren 6ra bitarte, lehiaketako epaimahaikideek aukeratutako 40 argazkiak ikusgai izango dira, Aranburu jauregiko beheko solairuan.

Gauaren iluntasun argiztatua, herri kirolen argia eta itzala, mendiak, Tolosako larunbatak, leihoak argi eta itzal iturri gisa... Argazkilari bakoitzak bere ikuspuntua eskaini dio argi eta itzalen gaiari, eta erakusketako bisitariek hamaika neurritako argi-itzalez gozatu ahal izango dute Aranburu jauregian.


Aranburu jauregian ikusgai dauden 40 argazkiak epaimahaiak sailkatu ditu. HITZA

Ikusgai dauden 40 argazkietatik, 13 izango dira irabazleak; hilabete bakoitzak argazki bana izango du, eta lehiaketako irabazleak datorren urteko egutegiaren azala beteko du. Modu honetara, sarituetako seik urte betez gasa doan izango dute; beste seik, berriz, argindarrik ez dute ordaindu beharko urte osoan; azkenik, sari berezi bat ere emango dute antolatzaileek, eta kasu honetan, urte beteko argindarra nahiz gasa dohainik eskainiko dizkiote argazki sarituaren egileari.

2013ko Tolosako egutegiko argazkiak aukeratuko dituen epaimahaikideak honakoak izango dira: Tolargiko ordezkaria, Tolosa Gasako ordezkaria, Miguel Uranga argazkilari aditu gisa, Herme Sagarna antolakuntzak gonbidatuta, eta azkenik, Tolosako Udaleko ordezkaria, kalitatezko botoarekin.

Hauez gain, ordea, herritarrek ere egutegiko argazki bat aukeratzeko eskumena izango dute, Aranburu jauregiko erakusketara joan, eta argazkirik gustokoena aukeratuaz. Bozka hauen bidez, publikoaren saria jasoko duen argazkia aukeratuko dute, eta herritarrek, gainera, Lumix argazki kamera digitalaren zozketan sartuko dira.

Argazki lehiaketako sarituak nahiz kameraren zozketako irabazlearen izena, datorren urriaren 11n jakinaraziko dituzte antolatzaileek, eta hedabideez gain, *http://tolosagasa.blogspot.com* blogak ere ezagutaraziko ditu irabazleen izenak eta argazkiak.

Aranburu jauregiko erakusketa, asteartetik ostiralera zabalik izango da, 17:00etatik 20:00etara bitarte, urriaren 6ra bitarte.

↓ **Zenbakia**

**664**

▪ **Aurkeztutako argazkiak.** Aurtengo lehiaketan parte hartu duten 51 argazkilariek, guztira, 664 argazki aurkeztu dituzte egutegirako. Antolatzaileek, neurriez eta gaiaz gain, baldintza bakarra jartzen diete parte hartzaileei: «Argazkiek Tolosan bertan egindakoak izan behar dute derrigorrez».






Zazpigarrenez antolatu dute, aurten, egutegirako argazki lehiaketa. I. URKIZU







## 2006an hasitako bidean, zazpigarren lehiaketa izango da

Zazpigarren urtez jarraian antolatu dute aurten, egutegiko argazkien lehiaketa, eta urtez urte herritarren artean interes handiagoa pizten ari den egitasmoa da.

Lehen bi urteetan gai zehatzik proposatu ez zuten arren, 2008tik aurrera, betiere Tolosa eszenatoki hartuta, gai bati lotutako argazkiak aurkeztu behar izan dira. Horrela beraz, *Natura* izan zen gaia 2008an, *Jaiak* 2009an, *Euskara eta kultura* 2010ean, *Erretratuak* 2011n, *Emakumea eta berdintasuna* iaz, eta aipatu bezala, *Argiak eta itzalak* aurten.











# Etiopiari laguntza emateko bigarren eskuko merkatu txikia antolatu dute

Gobernuz kanpoko Abay erakundeak antolatu du tolosarren laguntzarekin azoka, etzi, Trianguloan

**Asier Imaz** Tolosa



Tolosan iaz egin zuten bigarren eskuko merkatu txikiaren lehen edizioa. A. I.

Abay gobernuz kanpoko erakundea da, eta etzi, bigarren eskuko merkatu txikia jarriko du Tolosan, hamar mahai inguruz osatuta. Erakundeko hamabi lagun, 08:30etik 20:00etara egongo dira Trianguloa plazan, tolosarrengandik bildutako materiala saltzen. Aurtengoa bigarren edizioa izango da, iaz hasi baitziren Tolosan, merkatu txikiarekin. Urte guztian zehar, materiala biltzen ibili ondoren, tolosarren eskuzabaltasunaren emaitza erakutsiko dute hilaren 22an.

Bigarren eskuko azokan bildutako diru guztia, Etiopiara bidaliko dute Abay-ekoek, Walmara herrixkara. GKEtik azaldu dutenez, bertan «proiektu eder bat» ematen ari dira aurrera: «Bertako haurrek ikastolara joateko aukerarik ez zuten, ur bila bidaltzen baizituzten. Putzua herritik 10 kilometrora zegoenez, ikasketetarako denborarik gabe gelditzen ziren». Abay-en laguntzaz, putzu bat eraiki zuten ikastolaren ondoan, horrela, bi eginbeharrak bateratu zituzten. Osasun zentro bat eraiki ostean, orain liburutegiaren proiektua gauzatu nahi dute.

## → Laburrak

### Udalarekin harremanetan jartzeko zenbaki berria

**ALKIZA ›** Udaletxeko telefono linearekin arazoak dituzte Alkizan. Horiek konpondu bitartean, udalarekin harremanetan jartzeko 943 69 28 08 zenbakia jarri dute. Alkizako Udalak eragozpenak barkatzeko eskatu die herritarrei.

### Gaurko greba batzordean parte hartzeko deialdia

**ANOETA ›** Irailaren 26ko greba orokorra bultzatzeko batzar berri bat egingo dute Anoetan, gaur, 19:00etan. Herriko plazan elkartuko dira, proposamen berrien inguruan eztabaidatzeko eta aurreko batzarrean erabakitako lanak egiteko: buzoneoa, esku orriak tabernetan utzi, megafonia pasa, saltokietatik pasa... Herritar guztiak gonbidatu dituzte gaurko hitzordura greba batzordeko kideek.

### Subegiren etorkizunaren inguruko bilera, bihar

**IBARRA ›** Subegi Kultur Elkartearen inguruko bilera antolatu dute bihar, hilak 21, Subegin, 19:00etan. Batzar irekia izango da, eta bertan elkartearekin etorkizunean zer egin eztabaidatuko da. Mahai gainean proposamen bat egongo da, eta horren inguruko azalpenak emango dira batzarrean. Subegiko sortzaileei, ezker abertzaleko kideei, eta oro har, elkarteko erabiltzaile izan diren guztiei bilerara agertzeko deialdia luzatu die Subegitik.

### Maite Aranalderen urtebetetze argazkia

**IBARRA ›** Maite Aranalde preso ibartarraren urtebetetzeak direla medio, argazkia aterako dute Ibarran hilaren 23an, igandean, 12:00etan. Herriratik ibartar guztiei herriko plazara agertzea eskatu die, preso ibartar gazteari zorionak emateko eta elkartasuna azaltzeko. Behin argazkia atera ondoren, Maite Aranalderi bidaliko diote Vivonneko espetxera, Frantziara.

**Irudia ▷ Tolosa**



## ‘MATE’, GIPUZKOAKO TXAPELDUNORDE

Erretirodunen eta pentsionisten Gipuzkoako Xake Txapelketa jokatu zen herenegun, eta Juan Bautitsta Aranzabe *Mate* bigarren postuan gelditu zen. Finala oso lehiatua izan zen, eta azkenean, Mariano Oterok lortu zuen garaipena. Azken hiru txapelketetan, tolosarrak bi txapela eta bigarren postu bat lortu ditu, maila bikaineko xake jokalaria dela erakutsiz. KLISK

**Irudia ▷ Villabona**



## PIRINIOETAN GOZATUZ

Aizkardi mendi taldeak antolatuta, Pirinioetara joan ziren iragan asteburuan, 28 lagun. Aizkarditik azaldu dutenez, eguraldia lagun izan zuten, eta horri esker, paisaia ederrez gozatzeko aukera izan zuten. Bi eguneko irteeran, Bachimala (3.175m) igotzeko aukera izan zuten Villabonatik joandako mendizaleek. HITZA

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarrita
Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

HITZA Gipuzkoako bigarren egunkari irakurriena

ESKELAK • 18:30ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@hitza.info / Tel.: 943-65 56 95

Gutuna

# Greba orokorraz

Azken urteetako esperientziak erakutsi du erasoak geratzeko modu bakarra borroka dela. Horregatik izan behar du irailaren 26ko greba orokorrak erabateko arrakasta, eta hori bermatzeko beharrezkoa da ahal den batasun handiena. Burgesia langile mugimenduaren aurka elkartuta baldin badago, langileok ere beharrezkoa dugu gure indarrak elkartzea. Hori dela eta, ekintza sindikalaren batasuna funtsezkoa da; langileen zatiketak bankariei eta enpresari handiei bakarrik egiten die mesede. Horregatik uste dugu UGTk eta CCOOeko zuzendaritzek akats larria egiten dutela Hego Euskal Herriko irailaren 26ko greba orokorra ez babesten.

Eta ekintza sindikalaren batasunaren beharrarekin batera, uste dugu greba orokor honek borroka eta mobilizazio berrien plan bati lotuta joan behar duela, gero eta sektore sozial gehiagorengana heltzeko eta benetako gizarte errebolta baten baldintzak sortzeko. Baina plan hau ahal den demokratikoena izateko beharrezkoa da gazteen eta langileen antolakuntza maila handitzea. Sindikatuek jendea greba eta manifestazio handietan parte hartzera deitzearekin batera, funtsezkoa da herrietan eta hirietako auzoetan, lantokietan, enpresetan, ospitaleetan, ikastetxeetan eta abar, batzar publikoak bultzatzea gertatzen ari dena eta nola borrokatu eztabaidatzeko. Langabetuek, etxe-kaleratzeen arriskuan dauden pertsonek, langile prekarioek eta abar beren adierazpenak egiteko toki bat izango duten langile klasearen batzarrak behar dira, kaleko erantzun bakoitza hobeto antolatzeko, erabakitako mobilizazioak eta ekintzak bultzatzeko prest dauden langile guztiekin komiteak sortuz.

Bistakoa da borrokak sistema kapitalistaren gaur egungo kaosari aurre egingo dion alternatiba kontsekuente bati lotuta joan behar duela. Greba orokorrak eta manifestazioak, hauek oso garrantzitsuak izan arren, ez dira nahikoa kapitalismoarekin amaitzeko. Mobilizazioei elkartuta joango den programa alternatiboa, hau da, programa iraultzailea, sozialista, beharrezkoa da gizartea aldatzeko. Zapalkuntza sozialaren eta nazionalaren arduradunak kapitalistak badira, oinarrizkoa da beren bankuak eta enpresa handiak desjabetzea eta hauek langileen eta gizarte honetako zapalduen kontrolpean jartzea, langileok gure esfortzuarekin sortzen dugun aberastasuna parasito gutxi batzuen zerbitzura egon ez dadin, gehiengoaren bizi duinaren zerbitzura baizik.

▪ **Ibon Artola.** Euskal Herria Sozialistaren izenean.

**Oharra:** Gehienez 2.500 karaktere dituzten gutunak argitaratuko ditu HITZAK.

# Etzi hasiko dira Aresoko ehiza postuen enkanteak

Lehen enkantean behin behinean esleituko dira postuak, eta bigarrena egin aurretik sesteoa egin ahalko da

**Iñigo Terradillos** Areso



Pasa den urteko ehiza postuen enkantearen une bat. HITZA

Hastear da ehiza denboraldia, eta ehiztariek ia guztia prest dute lanean jartzeko. Norbere materiala gertu izatearekin batera, ehizan aritzeko kokalekua ere prest izatea funtsezkoa da. Bada, horretan ariko dira ehiztariak datozen bi larunbateetan Areson, ehiza postuen enkanteak egingo baitituzte.

Lehenengo enkantea etzi izango da, udaletxean, 19:00etan hasita, eta bigarrena, berriz, datorren larunbatean ordu eta leku berean. Lehenengoan behin-behineko izaeraz geratuko dira esleituta postuak, eta bigarren enkantea egin bitarte, sesteoa egiteko aukera egongo da. Hau da, behin-behineko izaeraz esleituta geratuko diren postu horiengatik ehiztari batek diru gehiago eskaintzen badu, berriro ere enkantera atera daitezke. Bigarren enkantean geratuko dira esleituta postuak.

**27 postu enkantera**

Pasa den urtean bezala, Urteaga mendian kokaturiko 27 ehiza postu jarriko dituzte enkantean. Adituek diotenez, «ehizan aritzeko leku aproposa». Jokin Barandarain Aresoko zinegotziak aipatutakoaren arabera, «postuen hasierako prezioa iazko berdina izango da». Hala, 3, 4, 21, 22 eta 23 zenbakia duten postuak dira prezio altuena dutenak, 600 euro, hain zuzen. 1, 5 eta 24 postuen hasierako prezioa 300 eurokoa izango da, eta gainerakoena 150 eurokoa.

Pasa den urteko enkantean postu guztiak geratu ziren esleituta, eta denen artean, 17.059 euro ordaindu zituzten. Aurtengoan ere kopuru hori errepikatzea espero dutela adierazi du Barandarainek. Gehien ordaindu zen postua 2.684 euro izan zen, eta gutxien, 183.

Pasa den urteko denboraldiari dagokionez, «nahiko ona» izan zela dio Aresoko zinegotziak. «Bigarroa nahiko ongi ehizatu zen, baina usoa, berriz, ez hainbeste, beraz, orohar, nahiko denboraldi txukuna izan zela esan daiteke».

**50 euroko fidantza**

Bestalde, neurri berria jarri du aurtengo ehiza denboraldirako Aresoko udalak. Ehiztari bakoitzak 50 euro jarri beharko ditu fidantza moduan, eta denboraldia bukatzean itzuliko zaio, norbere postua garbi uzten badu. «Neurri honekin, bai postua bai eta mendia ere txukun mantentzea lortu nahi dugu», dio Barandarainek.

Areson ehizarekiko afizioa handia da, eta horren adierazle, ehiztari elkarteak duen bazkide kopurua: «64 bazkide gara egun elkartean, eta guztiak dira herriarekin lotura zuzena duten herritarrak».

## Irudia ▷ Tolosa



# PEÑAK 25 ORDU EGIN DITU IGERIAN

Tolosako Carlos Peña igerilaria 25 orduz aritu da igerian Extremadura (Espainia) eta Portugal artean dagoen Alquevako urtegian. Extremadurako hezur muin eta zilbor heste emaileen elkartearen aldeko jarduera izan da. Igerilariak esandakoaren arabera, Alquevako urtegia «oso berezia» da, bihurgune asko dituelako, eta horrek, hain justu, hainbat arazo eragin zizkion: «Gauez ez nuen nahikoa ikusten, eta Gurutze Gorriaren ontziaren argia behar izan nuen». HITZA

## → Laburrak

### Zinpeko epaimahairako zerrenda dago ikusgai

**BERASTEGI ›** Berastegiko Udalak jakinarazi duenez, indarrean dagoen zinpeko epaimahairako zerrenden erakusketa jendaurrean jarrita egongo da, udaletxean bertan, irailaren 25era arte. Erreklamaziorik egin nahi izanez gero, NANaren, pasaportearen edo gida-baimenaren fotokopia aurkeztu beharko da udaletxean.

### Guraso izaten ikasteko ikastaroa emango dute

**BERASTEGI ›** Nerea Mendizabal Etxeberria, psikopedagogoa eta gizarte hezitzaileak zuzendutako «guraso izaten ikasteko» saioak eskainiko dituzte Berastegin. Izena emateko 943 147 182 edo 628 859 282 zenbakietara hots egin behar da, hilaren 30a baino lehen.

### Jimenezen 'Antologia', bihar, Leidorren

**TOLOSA ›** Agustin Jimenezen *Antologia* izeneko bakarrizketa saioa izango da bihar ikusgai Leidor aretoan, 20:30etik aurrera. *www.kutxa.net* helbidean edota Leidorreko leihatilan eskuratu ahalko dira sarrerak. Lan honetan umorea da nagusi, «asmo gehiagorik gabe», ikus-entzuleen lankidetza aktiboarekin.

**2012ko USATEGIEN ENKANTEA BIRIGARRO ETA USOA ARESO(NAFARROA)**

TEL 948-510 327-608-928 626

Donostiatik 20 minututara Paradetaraino sarbidea kotxez

Enkantea Udaletxeko Batzar Aretoan burutuko da.

**1go enkantea:** irailaren 22an, larunbata, 19:00 ordutan
**2. enkantea:** irailaren 29an, larunbata, 19:00 ordutan

## 2012-09-20 Eguraldia

| Goiza | Arratsaldea | Temperatura | Bihar | |
|---|---|---|---|---|
| | | 26º | GOIZA | OSKARBI |
| | | 18º | ARRATSALDEA | LAINOTUTA |
| | | | BEROENA | 27º |
| | | | HOTZENA | 18º |

**Argitaratzailea:** Tolosa Herria Hedabideak S.M.
**Lege Gordailua:** SS-0398-03
**Zuzendaria:** Rebeka Calvo
**Egoitza nagusia:** Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
**Telefonoa:** 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
**Leitza.** Herriko plaza, 1. 687 410 118
**E-posta:** tolosaldean@hitza.info
**Webgunea:** tolosaldea.hitza.info
**Zuzendariordea:** Imanol Garcia Landa. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
**Publizitatea:** 661 678 818 tolosa@bidera.eu
**Tolosa:** 687 410 082-687 410 033. tolosa@hitza.info
**Villabona:** 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info
**Anoetaldea:** 687 410 022. anoetaldea@hitza.info
**Ibarraldea:** 687 410 118. ibarraldea@hitza.info
**Alegialdea:** 687 410 034. alegialdea@hitza.info
**Leitzaldea:** 687 410 118. leitzaldea@hitza.info

**Tolosa Herria Hedabideak SM-ko kideak:** BERTAKO HEDABIDEAK, **Galtzaundi euskara taldea** eta Tolosaldeko eta Leitzaldeko beste 77 eragile | **Hitza-k Bai Euskarari**

**'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:** Aduna, Albiztur, Alegia, Altzo, Amezketa, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidegoian, Elduain, Hernialde, Ibarra, Irura, Larraul, Leitza, Lizartza, Orendain, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

**Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua** (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

## XVI. Argazki Lehiaketa





# BITXIKERIA ETA PARAJE UGARI

Gaurko lehen irudia Villabonako Pello Aranburuk bidali du. Oso urrutira joan gabe ere paraje ederrekin gozatzeko aukera dugula dio, eta argazkia Errioxan atera zuen. Ariane Irazustak, aldiz, Turkia bisitatu du uda honetan. «Arnasik hartzen ote zuen dudan gaude oraindik!», esan du. Azken irudia Vietnamen atera zuen Tolosako Urko Ormaetxeak, Quan Lan irlan, hain zuzen: «Ilunabarrean zuhaitzen isla ikusten da uretan, atzean itsasoa ta ondoko irla ikusten direla». Oraindik ere argazkiak bidaltzeko aukera duzu irakurle, animatu eta bidali irudiak *thargazkiak@hitza.info*-ra. P.A.-A.I.-U.O.



## Agenda

### DEIALDIAK

- **Tolosa.** Denbora Bankuaren lehen bilera, gaur, 19:00etan, kultur etxean.
- **Tolosa.** Pako Aristiren *Euskara hizkuntza bat bere bakardadean* hitzaldia, gaur, 19:30ean kultur etxen.
- **Anoeta.** Anoetako ezker abertzaleak deialdi berri bat egin nahi die herritarrei irailaren 26ko greba orokorrera begira. Gaurko batzarraren helburua batzordea berriz ere biltzea eta zenbait lan banatzea izango da. 19:00etan bilduko dira plazan.
- **Tolosa.** Alliri auzoko festetako hilak 29ko bazkarirako txartelak Alliri tabernan erosi daitezke, hilaren 23a baino lehen. Helduek 15 euro eta txikiek 6 euro ordaindu beharko dute.

### MUSIKA

- **Tolosa.** Orbelako Gauak ekimenaren barruan, Turlach taldea, gaur, 22:30etik aurrera.

### ZINEMA

- **Tolosa.** Zine klubaren barruan gaur, *Kiseki* filma jatorrizko bertsioan, 19:15ean eta 21:45ean.

## Farmaziak

### GAUR

- **Tolosa.** Egunekoa eta gauekoa: Tolosa, M.I. Kale Nagusia, 7. Telefonoa: 943 67 06 48.
- **Betelu.** Carrillo, A. Kale Nagusia, 5. 112.
- **Irurtzun.** Mutiloa, A. M. San Martin, 5. 112.

HITZAk ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

